EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EuskoRegite

# KONTSULTA GIDA

# IRISGARRITASUN ZIGILUA




## TEKNIKARIA

Kontsulta teknikorako gida. Irisgarritasun-zigilua EITetan,   bertsioa 1.0 / 2026ko ekainaren 17a

Euskoregite Euskadiko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen informazioa eta kudeaketa eskaintzen dituen ataria da.

Euskoregiteren web aplikazio berria Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren atari publikoan integratuta dago, eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren atari-sarearen barruan kokatzen da.

[www.euskadi.eus/euskoregite](http://www.euskadi.eus/euskoregite)

Euskoregiteren web aplikazioa

[www.euskadi.eus/euskoregite](http://www.euskadi.eus/euskoregite)



Gida honen bidez, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren irisgarritasunaren ebaluazioan integratutako Irisgarritasun Zigiluaren funtzionalitate nagusiak azalduko dira.

Modulu honek honako funtzio hauek egiteko aukera emango du:

*Gida honetaz gain, moduluan bertan deskuragarri dagoen eta handik deskarga daitekeen Erabiltzailearen Eskuliburu Osoa ere kontsultatu ahal izango da.*

## Aurkibidea

1. Zer da irisgarritasun-zigilua? .................................................................... 4

2. Nola sar naiteke irisgarritasun-zigiluaren aplikaziora? .................................. 4

3. Arau-esparrua........................................................................................... 6

4. Noiz aurkeztu behar da eraikinaren edo etxebizitzaren irisgarritasun-zigilua?.. 7

5. Zer kategoriatan egiten da ebaluazioa? ...................................................... 8

6. Zer kategoria ebaluatu behar dira kasu bakoitzean? ..................................... 8

7. Etxebizitzaren barrualdearen HAUTAZKO ebaluazioa. .................................. 9

8. Nork egin dezake irisgarritasun-zigiluaren ebaluazioa? ............................... 10

9. Eraikin bakoitzeko balorazio bakarra. ....................................................... 10

10. Nola txertatzen da irisgarritasun-zigilua eraikinaren Ikuskapen Teknikoan?... 10

11. Non kontsulta daitezke egindako irisgarritasun-zigiluak?............................. 11

Zigiluek egoera desberdinak izan ditzakete: .................................................... 12

12. Nola eguneratu daiteke irisgarritasun-zigilua? ........................................... 12

13. Zer informazio publikoa kontsulta daiteke? ................................................ 13

## KONTZEPTU OROKORRAK

### 1. Zer da irisgarritasun-zigilua?

EAEko eraikinen irisgarritasun-baldintzak neurtzeko eta ebaluatzeko aukera ematen duen tresna da, hiru azterketa-eremuren inguruan bildutako adierazle multzo batetik abiatuta:

1. Eraikina kokatzen den hurbileko hiri-ingurunea
2. Eraikinaren barne-komunikazioko espazioak
3. Etxebizitzaren barrualdea.

Emaitza irisgarritasun-baldintzen azken ebaluazioa modu bisualagoan eskaintzen duen eskala bat esleitzean datza. Informazio erreal eta uniformea ematen duen balorazio honek erraztu egiten du bizitegi-eraikinen irisgarritasuna kudeatzea eta ikusaraztea.

### 2. Nola sar naiteke irisgarritasun-zigiluaren aplikaziora?

4 aukera:

**A)** Euskoregitearen webguneko irisgarritasun-zigiluaren ataletik sartzea (esteka)




**B)** Euskoregite barruan egonda sartzea. (esteka)




| Probintzia | Udalerria | Herria | Kalea | Ataria | Solairu | Atea | Mota | Egoera | Sortze-d. | Sinadura-d | undefined |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | 8 de Marzo (Etorbidea/Ave | 2 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Toni Morrison (Kalea/Calle) | 14 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | FI | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | 02 | CN | Etxebizitza | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | P | 2026/03/04 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | P | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | F | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | RD | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abandoibarra (Etorbidea/A | 3 | | | Eraikina | P | 2026/02/24 | | |

**C)** EITren ediziotik sarbidea, irisgarritasuna atalean.
EIT baten xehetasunean, editatzen ari den bitartean, 4. puntuan (Irisgarritasuna), 4. fitxan Balorazioa eta neurriak (Irisgarritasun-zigilua)




| Kalea | Ataria | Egoera | Sortze-d. | EITn sartzea | Sinadura-dok. |
|---|---|---|---|---|---|
| 8 de Marzo (Etorbidea/Avenida) | 2 | B | 2026/03/05 | | |

**D)** Eraikinaren fitxako Irisgarritasun-zigilua ataletik sar daiteke




## 3. Arau-esparrua

Lehendik dauden eraikinen Irisgarritasun Zigilua Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren (EIT) barruan integratzen da, 117/2018 Dekretuak arautuko eraikinen ikuskapen teknikoaren esparruan, irisgarritasunaren egungo ebaluazioa eguneratu eta hobetzeko helburuarekin.

Euskoregite plataformako irisgarritasun galdetegiari irisgarritasun-zigiluaren balorazioa gehitzen zaio. Balorazio horrek irisgarritasunaren arloko hainbat adierazle ebaluatzen ditu, eta horren emaitza gisa kalifikazio-eskala bat esleitzen da.




## 4. Noiz aurkeztu behar da eraikinaren edo etxebizitzaren irisgarritasun-zigilua?

Irisgarritasun-zigilua Eraikinaren Ikuskapen Teknikoan egin beharreko irisgarritasun-ebaluazioaren parte da.

Horrenbestez, Euskoregite plataforma eguneratzen denetik aurrera (2026ko uztailaren 1etik aurrera), nahitaezkoa izango da irisgarritasun-zigiluaren balorazioa txertatzea eraikinaren ikuskapen teknikoan, honako kasu hauetan:

1. Nagusiki bizitegi-erabilerako eraikinak, eraikinaren lehen ikuskapen teknikoa aurkezten dutenean:
    - 50 urtetik gora izateagatik
    - Beste arrazoi batzuengatik, eraikinaren adina edozein dela ere (dirulaguntzak, etab.)
2. Eraikinek EITa berritu behar dutenean

Aukeran, eraikinaren irisgarritasuna hobetzeko obrak eginez gero, irisgarritasunari buruzko EITan aldez aurretik jakinarazitako datuak

eguneratu ahal izango dira, irisgarritasunaren arloko zuzenketa ziurtagiri bat aurkeztuta, irisgarritasunaren balorazio berria barne.

## 5. Zer kategoriatan egiten da ebaluazioa?

Tresnak irisgarritasuna 3 kategoriatan ebaluatzeko aukera ematen du. Kategoria bakoitza xehatuta dator, eta baldintza batzuk ditu, prestazio-helburu bat eta bete beharreko ebaluazio-irizpide batzuk definituta, helburua lortu dela egiaztatzeko.

1. **Hiri-ingurunea.** Eraikinaren inguru hurbila parametrizatzen du, etxadi-mailan, 100 metroko biraketa-erradioan, eraikinaren ingurua irisgarria den eta irisgarritasun-katea ebaluatzeko.

2. **Ataria eta amankomuneko eremuak.** Eraikinerako sarbideari, zirkulazio horizontalari eta zirkulazio bertikalari buruzko irisgarritasun-adierazleak aztertzen ditu, bai eta bizitegi-eraikinetako espazio komunen seinaleztapenarekin eta komunikazioarekin lotutako alderdiak ere.

3. **Etxebizitzaren barnealdea.** Kategoria honetan, etxebizitzaren barrualdearekin zerikusia duten adierazleak ebaluatzen dira: etxebizitzaren sarbidea, barruko zirkulazioa, instalazioak eta baita gelen azterketa ere.

## 6. Zer kategoria ebaluatu behar dira kasu bakoitzean?

Eraikinaren Ikuskaritza Teknikoari gehituko zaion irisgarritasun-zigiluak hiri-ingurunearen kategoria ebaluatu beharko du, baita atari eta amankomuneko eremuaren kategoria ere.

Etxebizitzen barnealdearen ebaluazioa aukerakoa da, bai bizitegi-eraikin kolektiboetan, bai familia bakarreko etxebizitzetan edo etxebizitza atxikietan. Hautazko ebaluazio hori ez da eraikinaren Ikuskapen Teknikoan sartuko, eta bestelako prozedura bat du, gidaren 6. puntuan edo Irisgarritasun-zigiluaren tresna erabiltzeko eskuliburuaren 4.1.4 puntuan azaltzen dena.

| | | |
|---|---|---|
| **1 HIRI-INGURUNEA** |  | **Derrigorrezko ebaluzazioa** |
| **2 ATARIA ETA EREMU KOMUNAK** |  | **Derrigorrezko ebaluzazioa** |
| **3 ETXEBIZITZAREN BARRUALDEA** |  | **AUKERAKOA** |

Ebaluatzen ari den eraikuntza-tipologiaren arabera, kategoria hauek ebaluatuko dira, jarraian aurkezten den eskemaren arabera:

| | | HIRI-INGURUNEA | ATARI ETA EREMU KOMUNAK | ETXEBIZITZAREN BARRUALDEA |
|---|---|---|---|---|
| Etxebizitzarako bizitegia | Familia bakarreko etxea | ✓ | ✗ | aukerakoa |
| | Etxe atxikietarakoa | ✓ | Eremu komunak izanez gero | aukerakoa |
| | Kolektiborakoa bloke exentua | ✓ | ✓ | aukerakoa |
| | Kolektiborakoa mehelinen artean | ✓ | ✓ | aukerakoa |

## 7. Etxebizitzaren barrualdearen HAUTAZKO ebaluazioa.

Etxebizitzaren barruko kategoria hautazkoa izanen da. Ez da eraikinaren ikuskapen teknikoaren txostenean sartuko. Kasu horietan, balorazioa egiten duen teknikariak jabetzaren ordezkaritza-agiri bat (esteka) aurkeztu beharko du, jabetza agiri hori aurkezteko baimena ematen ari dela egiaztatzeko.

Baimen dokumentua zigiluaren lan-paneletik eransten da, irisgarritasun-zigiluen zerrendan, “Eman ordezkaritza-dokumentua” botoiaren bidez.




| Probintzia | Udalerria | Herria | Kalea | Ataria | Solairu | Atea | Mota | Egoera | Sortze-d. | Sinadura-d | undefined |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Abetxuko (Errepidea/Carret | 2 | | | Eraikina | B | 2026/03/06 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | 8 de Marzo (Etorbidea/Aver | 6 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Toni Morrison (Kalea/Calle) | 5 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| **Araba/Álav** | **Vitoria-Gasteiz** | **Vitoria-Gasteiz** | **8 de Marzo (Etorbidea/Av** | **2** | | | **Eraikina** | F | **2026/03/05** | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Toni Morrison (Kalea/Calle) | 14 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | FI | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | 02 | CN | Etxebizitza | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | P | 2026/03/04 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | P | 2026/02/24 | | |

Behin ordezkaritza agiria aurkeztuta, zigilua erregistratuta geratuko da eta irisgarritasun-etiketa eraikinaren informazio oharrean agertuko da.

## 8. Nork egin dezake irisgarritasun-zigiluaren ebaluazioa?

117/2018 Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, eraikinen ikuskapen teknikoa Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen arabera gaitutako titulazio profesionala duen pertsonak egingo du.

Horrenbestez, irisgarritasun-zigilua EITaren irisgarritasun-ebaluazioaren parte denez, EIT txostena idazten duen teknikari berak egin beharko du.

## 9. Eraikin bakoitzeko balorazio bakarra.

Eraikin bakoitzeko edo etxebizitza barnealde bakoitzeko irisgarritasun-balorazio bakarra egongo da.

## 10. Nola txertatzen da irisgarritasun-zigilua eraikinaren Ikuskapen Teknikoan?

PWA tresnaren bidez (zigiluaren aplikazioa) irisgarritasun-zigiluaren ebaluazioa egin ondoren, balorazio hori EITan sartu beharko da, 4. atalean (Irisgarritasuna).




| Kalea | Ataria | Egoera | Sortze-d. | EITn sartzea | Sinadura-dok. |
|---|---|---|---|---|---|
| 8 de Marzo (Etorbidea/Avenida) | 2 | F | 05/03/2026 | | |

## 11. Non kontsulta daitezke egindako irisgarritasun-zigiluak?

Euskoregite plataforman ziurtagiri digitalaren bidez sartu ondoren, Irisgarritasun Zigiluaren eremuan teknikariak egindako zigilu guztiak kontsulta ditzake, baita horien izapidetze-egoera ere.




| Probintzia | Udalerria | Herria | Kalea | Ataria | Solairu | Atea | Mota | Egoera | Sortze-d. | Sinadura-d | undefined |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | 8 de Marzo (Etorbidea/Ave | 2 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Toni Morrison (Kalea/Calle) | 14 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | FI | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | 02 | CN | Etxebizitza | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Los Herrán (Kalea/Calle) | 41 | | | Eraikina | B | 2026/03/05 | | |
| Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | Vitoria-Gasteiz | Gabriela Mistral (Kalea/Call | 16 | | | Eraikina | P | 2026/03/04 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | P | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | F | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abusu (Kalea/Calle) | 1 | | | Eraikina | RD | 2026/02/24 | | |
| Bizkaia | Bilbao | Bilbao | Abandoibarra (Etorbidea/A | 3 | | | Eraikina | P | 2026/02/24 | | |

**Zigiluek egoera desberdinak izan ditzakete:**

B Zirriborroa: lehen egoera balorazio bat hasten denean.

F Sinatua: zirriborro-egoeran zegoen irisgarritasun-balorazio bat sinatzen denean.

FI Sinatua Barne: zigilu sinatua EIT edo Zuzenketa batean sartzen denean.

E Bidalita: irisgarritasun-zigilua duen EITa bidaltzen denean.

R Jasoa: irisgarritasun-zigilua duen EITa jasotzen denean.

P Argitaratua: Irisgarritasun zigilua duen EIT bat argitaratzen denean.

RA Udalak ezeztatua: dagokion udalak EITa ukatzen duenean, txostenean sartutako zigilua egoera berera pasatzen da.

RD Sailak ezeztatua: sailak irisgarritasun-zigilua duen EIT bat errefusatzen duenean.

## 12. Nola eguneratu daiteke irisgarritasun-zigilua?

Indarrean dagoen EIT baten barruan dauden irisgarritasun-zigiluaren balorazioak ezin izango dira aldatu, EITaren berritzea aurkezten denean edo Zuzentze-Ziurtagiri bat aurkezten denean izan ezik.

Zuzenketa bat egitean, eguneratutako irisgarritasun-zigiluaren balorazioa 8. Eremuan sar daiteke. Txostena egin eta amaitu eremua.




## 13. Zer informazio publikoa kontsulta daiteke?

EITn txertatutako irisgarritasun-zigiluaren balioespenaren laburpen-informazioa Euskoregitearen eraikin-bilatzailean egongo da eskuragarri. Informazio oharrean, ebaluatu diren kategorien irisgarritasun-etiketa ezarriko da.









Etxebizitzaren barrualdeari buruzko balorazioen kasuan, teknikariak "Irisgarritasun Zigilua" lan-panelaren bidez jabetzaren ordezkaritza-agiria sartu ondoren bakarrik argitaratuko da etiketa.


Hasiera
Komunikazioak
EIT berria
Inkesta inprimakia
Dokumentazioa
Irisgarritasun-zigilua
JON ORTEGA ESPAÑA (Técnico) dago: Hasiera › Irisgarritasunaren balorazioak
Saioa itxi
Irisgarritasun-zigiluen zerrenda
Xehetasuna
Sortu
Ezabatu
Aurreikusi PDFa
PDFa sortu eta sinatu
Ezabatu sinadura
Eman ordezkaritza dokumentua
Iragazketa irizpideak:
Probintzia Udalerria Herria Kalea Ataria Solairu Atea Mota Egoera Sortze-d. Sinadura-d undefined
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Abetxuko (Errepidea/Carret 2 Eraikina B 2026/03/06
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz 8 de Marzo (Etorbidea/Ave 6 Eraikina B 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Toni Morrison (Kalea/Calle) 5 Eraikina B 2026/03/05
Araba/Álav Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz 8 de Marzo (Etorbidea/Av 2 Eraikina F 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Toni Morrison (Kalea/Calle) 14 Eraikina B 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Gabriela Mistral (Kalea/Call 16 Eraikina FI 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Los Herrán (Kalea/Calle) 41 02 CN Etxebizitza B 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Los Herrán (Kalea/Calle) 41 Eraikina B 2026/03/05
Araba/Álava Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Gabriela Mistral (Kalea/Call 16 Eraikina P 2026/03/04
Bizkaia Bilbao Bilbao Abusu (Kalea/Calle) 1 Eraikina P 2026/02/24
Lehenengo orrialdea Aurrekoa 16 orrialdetik 4 Hurrengoa Azken orrialdea 10
31 - 156(e)tik 40 erakusten